

Hau da momentua ikertzaileen lan-baldintzak lortzeko! Administrazioak hartutako konpromisoak



Gezur, demagogia eta interes partidistak giroa lokazten ari diren hauteskunde sindikalen aurreko garai honetan, LABek langileen aldeko negoziazioa aldarrikatzen du. EHUn azken aldebakarreko erabakien aurrean, erretiroaren akordioak puskatzea esaterako, LABek jarrera argia du: alde batetik kalean eta epaitegietan salatu du erabaki hau; eta bestetik ikertzaileen prekarizazioaren bezalako gaiak bertan behera ez geratzeko negoziazio prozesuekin jarraitzeko erabaki irmoa hartu du. **Hau zen momentua ikertzaileentzako soldaten hobekuntzak lortzeko, 2023ko EHuko aurrekontuak egiten ari direnean, bestela ez zen aukerarik izango aurreko hobekuntzarik izateko.** Harritzen gaitu interes elektoralengatik sindikatu batzuek honen aurka egitea. Minoria batek ezin du betatu horrelako langileentzako hobekuntzak.

Testuinguru honetan, ikertzaileei dagokienez urteak daramatzagu soldata duintzeko [borrokan](#), bide judiziala eta negoziazioarekin uztartuta. [EPIPFa](#) indarrean sartu zenean eta EHUK doktoretza aurreko soldata estatutuan jasotzen denari egokitu ez zituenean, [borroka judizial sutsuari ekin genion eta irabazi ere](#). 2021eko abenduan behin-behineko ikertzaileen soldaten [akordioa](#) sinatzea lortu genuen sindikatuen ordezkariaren % 81,5ek babestuta. Baina, esan genuen moduan, borroka ez zen horrekin bukatzen. Akordioak 2023an doktoretza aurreko ikertzaileen soldata igotzeko aukera irekitzen zuen eta hori eta beste hobekuntza batzuk [negoiatzea eskatu genuen iazko uztailan](#), besteak beste: doktoretza aurreko ikertzaileen soldata igoera eta gainerako ikertzaileei soldataren egokitzea berehala gauzatzea; beren egoera ekonomiko larriaz konturatuta Estatutik kanpo dauden Margarita Salas ikertzaileentzako soldata osagarri unibertsala onartzea; [PFEZa ez atxikitzea](#) (EAEko foru arauak ezarritakoa betetzeko). Kostata, baina lortu genuen Administrazioa negoziazio horretan sartzea. Eduki ditugun azken negoziazio bileretan Administrazioetik lortu ditugun konpromisoak ondorengoak dira:

- Doktoretza aurreko ikertzaileak: 2023ko urtariletik bere soldata % 1,5 igotzea, langile publikoen soldata igoeraz aparte, eta 2024ko uztailan, beranduenez, beste % 3,5. Ondorioz, 2024an doktoretza aurreko ikertzaileen soldata kalkulatzeko irakasle atxikiaren soldataren % 100 izango da (ondoren, Estatutuan ezartzen diren portzentajeak aplikatuko dira).
- Estatutik kanpo dauden doktoretza osteko ikertzaileentzako soldata osagarri bat.


- Berehalako soldata egokitzapena EPIPF aurreko Ministerioko doktoretza aurreko ikertzaileentzat (2019ko martxoaren 1a baino lehenagoko kontratuak).
- Maria Zambrano doktoretza osteko ikertzaileen soldatarako, irakasle agregatuena ezartzea.

Behin Administrazioak aipatutako konpromisoak hartuta eta negoziazio mahaian gauden sindikatuek IRI laboralen gehiengoa ordezkatzan dugula kontuan hartuta (% 66,6), erabaki dugu hobekuntza hauek jasoko dituen akordioa hauteskunde sindikalen ostean egitea, une honetan negoziazio mahaietatik kanpo dauden beste sindikatuek akordioaren azken idazketan parte hartzeko aukera izan dezaten egokia iruditzen bazaie.

LABek jarraituko du lanean ondorengo urteetan ikerkuntza ibilbide osoaren defentsan, eta behin-behineko ikertzaileen lan-baldintzak hobetzen saiatzen, besteak beste, doktoretza aurreko ikertzaileen soldata duintzeko, hau da, egungo laguntzaile soldatara iritsi arte.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO DOKTOREGO AURREKO SOLDATA MINIMOA

(Minimoa = 1. eta 2. urteak; beste urteak era berean igoko dira)



	Erreferentzia gordina	Igoera gordina	Soldata garbia	Igoera	Igoera metatua
	€/urte	%	€/hile	%	%
EPIPF (Ikertzaileen Estatutua)	30.752,12 €	% 0,00	1.029,07 €	% 0,00	% 0,00
1- EHUn lortu duguna: PFEZ salbuespena	30.752,12 €	% 0,00	1.127,48 €	% 9,56	% 9,56
2- EHUn lortu duguna: AT %95 urtariletik	31.340,15 €	% 1,91	1.150,54 €	% 2,04	% 11,80
3- EHUn lortu duguna: AT %96,5 urtariletik	31.834,99 €	% 3,52	1.169,94 €	% 1,69	% 13,69
4- EHUn lortu duguna: AT %100 2024ko uztaila	32.989,63 €	% 7,28	1.215,21 €	% 3,87	% 18,09

(%2,5-eko igoera izango dute erreferentzia hauek 2023an Estatu Espainiar mailako soldata igoera orokorra dela eta)

Aitzakiarik gabe, lan baldintza duinak EHUko ikertzaile guztientzat!